

Familian, eskola-jazarpenari aurre egiteko jarraibideak

“Eskola-jazarpena” dagoela ulertzen dugu, seme-alabek beste ikaskide batzuegandik, denbora luze batez eta modu jarraituan, ekintza negatiboak jasotzen dituztenean.

Ondorengo ekintza hauek “ekintza negatibotzat” hartzen dira:

- Bazterketa soziala: norbaiti muzin egitea edo parte hartzen ez uztea.
- Hitzeko eraso: norbait iraintzea edo pertsona horren inguruan gaizki esaka aritzea.
- Zeharkako eraso fisikoa: norbaiti zerbait ezkutatzea, zerbait puskatzea edo gauzak lapurtzea...
- Eraso fisiko zuzena.
- Beldurraraztea/mehatxua/xantaia: norbaiti beldurra sartzeko mehatxu egitea edo zerbait egitera behartzea, armekin mehatxatzea, ... etab.
- Sexu-jazarpen edo -abusuak.

Seme-alaba “eskola-jazarpenaren” biktima denean erabili beharreko estrategiak:

- Ez kendu garrantzia bere kexuei, ziurrenik esfortzu asko egin behar izan baitu zelan sentitzen den azaltzeko. Zuen aldetik zintzotasuna, ulermena eta arreta eskatzen du.
- Ez erabili biolentziarik erasotzailearen kontra.
- Ez esan bere arazoez berak arduratu behar duenik, ahal izango balu ez lukeelako laguntzarik eskatuko.
- Ez konpondu arazo hauek zuen kontura: zuen seme-alabei ziurtasunez esan behar diozue ez duzuela ezer egingo aurretiaz beraiekin hitz egin gabe (beraiei egingo duzuenaz informatu behar diezue).
- Laguntza eskatu irakasleei edo Zentroko orientazio zerbitzuari.
- Ez borrokarako estimulatuz zuen haurra bere burua babesteko. Horren ordez, mehatxatzen duen pertsonaz aldendu dadila edo irakasle edo beste nagusi bati laguntza eskatzea proposatu ahal diozue.
- Lagundu haurrari bere eskubideen alde egitera. Azal iezaiozue mehatxatzen duen pertsonaren helburua bere erantzun bat lortzea dela eta horregatik pertsona hori saihestea dela konponbiderik egokiena.
- Zentrorantz doanean edo bertatik irteten denean, animatu bere lagunekin egotera edo joatera.

Zure seme-alaba denean erasotzen duena:

- Ez da gomendatzen bere jokaera negatiboak babestea mota honetako topikoak esanez: “horrelakoak dira haurrak...”.
- Gogoratu behar zaie besteak beldurraraztea ez dela inoiz positiboa izaten, biktimaren konfiantza murrizten delako.
- Komunikazio aktiboa bilatu.
- Ahalik eta denbora gehien eskaini: denbora hori positiboki baloratuko du eta portaera egokitzailagoak irakasteko balioko dio.
- Deserosoak diren egoeren nahiz pertsonen aurrean erasokorrek ez diren erantzunak ematen irakatsi. Errespetuz hitz egiten irakatsi, beste aldean jolas dezan irakatsi eta lagunekin elkartzeko animatu.
- Desberdinak garelako gogorarazi, ez hobeagoak ez txarragoak. Eta desberdintasun horiek onartzen ikasten duenean, besteenganako errespetua izango duela eta gainontzekoek ere errespetua izango diotela jakinarazi.

Laburpena

Eskola zentroetan, bereziki gatazkatsuak diren egoerak oso kaltegarriak izan daitezke. Biktimaren kasuan honako honetan bihur daiteke: eskola porrota, trauma psikologikoa... Erasoaren bidez lortzen den boterearen ikaskuntzak, etorkizunean delituzko jarrerak izatera eraman dezake erasotzailea, ekintza bortitzak sozialki onartuak eta sarituak direnaren sinesmena bultzatzen ari zaiolako. Behatzaile diren ikaskideengan, aldiz, bidegabekeriarekiko jarrera pasiboa eta adeitsua garatzea ekar dezake.

Ainhoa Manzano Fernández Doktorea eta Juan Luis Martín Ayala Doktorea
ETXADI
Familia-Psikologia Unibertsitate-Zentroa
Centro Universitario de Psicología de la Familia